

# "BILDUMAK BILDUMAN"

Elixabete Perez Gaztelu

**D**raindik orain, martxoaren 12an, aurkeztu dute Udaletxeko areto nagusian Erretereriako Udal Artxiiboak plazaratzen duen aldizkariaren azken *Bilduma*.

Bestelako ikergaietara, historikoetara batez ere, ohituta gauzkan aldizkariak azken alean bere magalean hartu ditu Erretereria eta euskara lotzen dituzten bi iker- eta bilduma-lan.

Ez da halako oparoa askotan izaten eta, bada motiborik aski aurtengo *Oarso* herriko urtekari honetan oihartzuntzua eduki dezaten.

Lan horien berri laburra eman nahi dute lerro hauek, hortaz, eta, ahal dela, irakurlearentzat zubi edo atarikoia izan *Oarso* urtekaritik *Bilduma* aldizkarira.

\* \* \*

Lehen lana Kataluniatik datorkigu, Josep Del Río Rodríguez ikertzaile gazte kataluniarrek egina, baina erretereriar batek gidatua. Izan ere, Itziar Aduriz Agirre herriko alaba bartzelonartuak zuzendu du, Koldo Zuazo euskal dialektologo ezagunarekin batean, Del Ríoren doktore-tesia. Horixe baita, doktore-tesiareneko laburpena, *Bildumako* lehen bilduma; Erretereriako euskararen osagaien bilduma, alegia.

*Erretereriako euskararen kokapen dialektala* izena jarri dio eta auzi horixe argitzen saiatu da Del Río 108 orrialdeko (7.etik 115.era) laburpen honetan: zein ote den Erretereriako euskararen kokalekua euskalki eta azpieuskalkien artean.

Lanaren egitura hauxe da: lau zati, gehigarria eta bibliografia. Zation izenak ikusita aise asma daiteke nolakoa den gordetzen duten edukia: "A. Sarrera. Euskararen historia eta euskalkiak, B. Erdialdeko euskara. Tarteko hizkerak eta ukipen-hizkera, C. Erretereriako kasua. Metodologia eta deskribapena, eta D. Ondorioak eta etorkizunerako proposamenak".

Egileak Erretereriako hizkera euskalkien, dialektoen artean kokatzeko, atzera eta gora egin du: atzera, euskararen historiara, eta gora, hiztun

batzuen hizkeretatik hizkuntza osora, eta hortxe, bien bidegurutzean, egin du topo euskalkien sailkapenekin.

Oraindik ere bulego eta etxe batzuetako hormetan zintzilik ikusten den Bonaparte printzearen euskalkien mapa handiko sailkapen klasikotik haratago, Zuazoren proposamen berriagoari heldu dio Del Ríok eta Erretereria erdiko euskalkien artean kokatu, mugako pasabideko hizkeratzat jota. Ezin bestela izan, beti mugan eta atea zabalik bizi (izan) den Erretereria tartean izaki.

Zer datuk eraman duten ikertzailea sailkapen horretara eta zein arrazoibide eman dituen bere iritzia oinarritzeko ederki adierazita daude *Bildumako* lanean. *Oarsoko* irakurleak hara jo beharko du xehetasun bila.

Esana dugu Erretereriako euskara duela aztergai, baina zein da Del Ríoren begietan Erretereriako euskara? Ez dialektologiako lan klasikoetan nagusi izan diren irizpideak erabilita leku horretako hizkera ahalik eta garbien, gutxien kutsatuen darabilen erretereriar hiztun zaharrarena. Kataluniarrek bestela jokatu du hiztunak aukeratzeko: esan dezagun soziolinguistikaren irizpideez baliatu dela, baina eskuragarritasunari ere ez diola muzin egin. Emaitza: hogeita bi laguneko gizatalde bat, kalekoa, giro euskaltzalekoa..., eta hogeita bi erretereriar euskaldun horiek elkarrizketa libre batzuetan esandakotik ondorioztatu du Erretereriako hizkeratzat hartu duena. Hiztunen aukera izan daiteke, hain zuzen, lanaren atal eztabaidagarriena. Bestetik, saiatu da hiztunen artean zaharragoak eta gaztetxoagoak elkartzen egiaztatzeko Erretereriako hizkera aldatzen ari ote den eta, baiezkoan, zer arlotan ari den gertatzen.

Esan beharrik ez dago dialektologiazaleak aurkituko duela lan mamitsu honetan zer irakurri, zer hausnartu eta, seguru, zer eztabaidatu. Zer osatu ere bai, tesigileak "Etorkizunerako proposamenetan" egiten duen gonbitari erantzun nahi izanez gero behintzat. Eta etxeko nahiz kanpoko dialektologiazale ez direnek ere izango dute zer ikasia orrialde horietan.

Ez gara gauza jatorrizko katalanaren maila epaitzeko, baina euskal itzulpena bederen, erraz irakurtzen da. Hori ere baitu berezitasun lan honek: katalanetik euskarara zuzenean itzuli dutela (Eusko Jaurlaritzaren eta Errenteriako Udalaren laguntzaz).

Bihoaz guztiagatik gure eskerrona, errenteriarrok egin ez dugun lana egin duen Josep del Río lagun kataluniarrari, eta gure zorionak tesigileari, zuzendariei eta itzultzaileei.

Inork lanaren oinarri diren elkarrizketa grabatuak entzun nahiko balitu, Errenteriako Udaletxera jo dezake.

\* \* \*

Ekarri nahi izan dugun *Bildumako* bigarren lana ere ikerketa eta bilduma izanagatik, arras bestelakoa da. Valentín Olaetxea Pasai Antxoko itzultzailearen proiektuak irabazi zuen bi urtez behin Errenteriako Udalak deitzen duen Koldo Mitxelena ikerketa-bekaren azken deian eta hementxe dugu emaitza: *Koldo Mitxelenaren hitz-altxorra: hitz, lokuzio eta esapideen bilduma*.

Olaetxeak eginiko lanak bi hanka ditu: paperezkoa bata, *Bildumakoa*, eta CDkoa bestea, aldizkariarekin batean banatzen dutena. Hobeki esan, lanaren soina CDan bildutakoa da, eta paperezkoa kalera atera ahal izateko jantzitako soinekoa. Teknologia berrien erabiltzaileen pozerako, Internet nonahikoari esker, Errenteriako webean dago lana oso-osorik –paperezkoa eta CDkoa– 17. aleaz geroztiko *Bildumako* ale guztiak bezalaxe. [www.errenteria.net]


Paperean argitaratu duen 18 orrialdeko atala (185-203) abiatzeko, Mitxelenaren hitz batzuk jo ditu begiz Olaetxeak: klasikoak irakurri beharra azpimarratzen du Goiko kalekoak. Ezin egokiago aukeratuak hitzok, erabat josten baitzaio errenteriarren mandatua pasaitarraren asmoari. Olaetxeak Mitxelena “klasikoa” bere erara irakurri du eta gainerakooi Mitxelenaren euskal lanen harrobi (*altxor*) horretatik aukeratu dituenak erabiltzeko tresnak jarri dizkigu eskura.

Paperezko “soinekoan” lanaren aurkezpen edo azalpen laburra egin du (3 orrialdetsu) adierazteko ikerlanaren helburua, zergatikoa, nola jokatu duen, zer bildu duen eta adibide sorta bat ere aukeratu du, CDan topa daitekeenaren erakusgarri. Azalpen estimagarriak guztiak ahoa goxatzen hasteko, bildumara, jakira, zuzen-zuzenean jo ez dezagun.

Zertarako egin duen lana guk egin dezakeguna baino hobeto adierazi du egileak:

Uste dut euskarazko munduan maisu eta bide-erakusle izan den Koldo Mitxelenaren hizkuntza aberatsak bide egoki bat eskaintzen digula gure esapideen gordailua osatzeko, aurkikuntza berriak egiteko eta, azterlanen emaitzari esker, gure hizkuntzaren adierazkortasuna handitzeko. (187. or.)

Olaetxeak propio aitortzen ez badu ere, lan hau zergatik egin duen argitzeko, berriz, uste dut ezin zaigula atzendu itzultzailea dela –hizkuntzen



arteko zubigilea, alegia– eta arian aritzeak erakutsi diola zenbatetan ibili behar izaten den hitzekin, eta batez ere esapideekin, borroka bizian, amets hutsa omen den hizkuntzen arteko erabateko baliokidetasunaren bila. Ez da neke handirik hartu behar konturatzeko zein zaila den askotan hiztegi-gileek lekurik egiten ez dieten esapide, adierazpide eta oso ongi sailkatzen ez dakigun hizkuntza elementu horiek hizkuntza batetik bestera iraultzen. Horretan ere lagundu nahi du Olaetxeak Mitxelenaren altxorrera joz.

Itzultzaileek zer esango duten ezin jakin, baina itzultzaile (ofizios behintzat) ez garenok etekina aterako diogula lan honi dudarik ez dut.

Esan dugu lanaren muina, soina, CDan dagoela. Euskarri honek paperak baino askoz ere informazio gehiago biltzeko ematen duen abantailaz baliatuz, Olaetxeak bildumarako hautatuko hitz eta esapideak jaso ditu bi dokumentutan: “Hiztegia” eta “Eranskinak” izenekoetan, hurrenez hurren.

Olaetxeak Mitxelenaren euskal prosako zeri iritzi dion hiztegian jasotzeko modukoa ez da, agian, denok aho batez onartzekoa. Testugintzan urtetan aritzeak emandako eskarmentua izan du lemazain, eta horretan oinarrituta egin du bere aukera. Alfabetoaren arabera ordenatu ditu errenteriarrenak eta gaztelaniatzko itzulpena alboratu.

Eranskinetan, berriz, hautatutako hitzetik gorako hainbat esapide (zabal esan) bildu ditu sailkatuta. Espero izatekoa den bezala, Olaetxeak egindako sailkapena ez da egin daitekeen bakarra eta erabili dituen hainbat termino ere, seguruenik, beste era batera erabiliko lituzkeenik ez da faltako.

Oso interesgarria deritzagu bilduma euskarri digitalean emateari, izan ere, euskal sarreratik ez ezik (demagun, **adarra jo, doi-doi, tratua egin**) gaztelaniakotik ere bilaketak egin daitezke (*tomar*

*el pelo, a duras penas, cerrar un trato*). Azaldu beharrik ez dago bi hizkuntzetatik kontsultatu ahal izateak zer abantaila dakarkion Mitxelenaren adierazpidean ikasi eta sakondu nahi duenari.

Valentín Olaetxeak ederki burutu du orain dela bi urte Koldo Mitxelena ikerketa-bekari esker hasitako proiektua, eta zoriontzekoa da. Eta zorionekoak gara gu esku artean (edo pantailan) Mitxelenaren hainbat hitz eta esapideren bilduma kontsultatu eta erabil dezakegulako.

Beharrik, ez da ikerketa-beka honek euskararen eta Mitxelenaren azterketan eman duen fruitu bakarra. Bi besterik ez aipatzearren, Luis Nuñez zendu berriaren euskararen historiaren gaineko lana eta Patri Urkizuren Mitxelenaren gutunen bilduma (hura ere) gogoraraztekoak dira. Gisa honetako lanentzako guztiz beharrezkoa da erakundeen babesa eta argitaratzeko bideak zabalik egotea. Ez ahal dira gaur ekarri ditugunak Errenteriako Udalak eta *Bildumak* gure eskuetan jartzen dituzten azkenak!

\* \* \*

El ejemplar de *Bilduma* que hemos querido traer a las páginas de este anuario es el último que su director, Juan Carlos Jiménez de Aberásturi, ha dirigido en su condición de archivero del Ayuntamiento de Errenteria. Valgan estas líneas como reconocimiento a la labor que ha desempeñado durante todos estos años a la cabeza de las publicaciones del ayuntamiento de la villa, de *Bilduma* en especial, y de la convocatoria de la beca de investigación que lleva un nombre que tanto significa para muchos renterianos y, si se me permite, para mí en particular, Koldo Mitxelena.

Espero que el fin de la vida laboral no signifique dejar de contar con tu presencia entre nosotros.

